

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ESKUERNAGAKO UDALA

Euskara ikasteko laguntzen deialdia

Udalbatzak, 2023ko irailaren 5ean egindako ohiko bilkuran hartutako erabakiaren bidez, onetsita geratu dira 2022-2023 ikasturtean euskara ikasteko laguntza deialdiaren oinarri arautzaileak.

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrak 9. artikuluan jasotakoarekin, aipatutako oinarriak argitaratzen dira.

Lehenengoa. Xedea

Oinarri hauen xedea da arautzea nola eskuratu Eskuernagako Udalak norgehiagoka bidez ematen dituen dirulaguntzak. Laguntza horien helburua izango da euskara ikasteak eragindako gastuak ordaintzen laguntzea, euskara normalizatzeko eta, bereziki, euskararen ezagutza eta erabilera areagotzeko aldera. Diruz lagundu aha izango dira honako modalitate hauek batean matrikulatzeak eragindako gastu guztiak:

- 2022ko urriaren 1etik 2023ko ekainaren 30era bitartean emandako aurreko ikaskuntza ikastaroak.
- 2022ko urriaren 1etik 2023ko ekainaren 30era bitartean emandako urrutiko ikaskuntzako edo multimedia sistema bidezko ikastaroak.
- Ikastaro trinkoak.
- Barnetegietan egindako ikastaroak.

Deialdi honetatik kanpo geratzen dira joan-etorrien, mantenuaren, materialaren eta ostatuaren gastuak. Dirulaguntzetara aurkeztutako ikastaroaren matrikularen gastua bakarrik hartuko da kontuan. Beraz, barnetegietako ikastaroetan eta antzekoetan, eskaeran ikastaroaren guztirako kostua banakatu egin behar da, alde batetik, matrikularen zenbatekoa zehaztuta eta, bestetik, gainerako gastuak (materiala, mantenua, ostata...).

Ikastaroak diruz lagundu ahal izateko, homologatutako euskaltegietan egin beharko dira.

Bigarrena. Aurrekontuko zuzkidura

Deialdi honetan ematen diren dirulaguntzen guztirako zenbatekoa ezin da izan aurrekontuan ezarritakoa baino handiagoa.

Zenbateko hori ez bada nahikoa aurkeztutako eskaera guztiei erantzuteko, laguntzak proportzionalki hainbanatuko dira gehieneko zenbateko horretara iritsi arte, salbu eta aurrekontu partida hori aurreikusitakoa baino gastu txikiagoa izan duten beste partida batzuen kargura handitu badaiteke.

2022ko urriaren 1etik 2023ko ekainaren 30era bitartean egindako ikastaroetarako gastua Eskuernagako Udalaren 2023ko aurrekontu orokorraren kontura izango da.

Hirugarrena. Onuradunak

Dirulaguntza hauek Eskuernagako udalerrian errolatuta dauden pertsona fisiko guztiek jaso ditzakete, honako baldintza hauek betez gero:

- Eskuernagako udalerrian gutxienez urtebetez jarraian errolatuta egotea diruz lagundu daitekeen ikastaroa hasi aurretik.
- 16 urte baino gehiago edukitzea.

- Deialdiaren lehen oinarrian zehazten diren ikastaro modalitateetako batean matrikulatuta egotea euskara irakasten den zentro batean.

- Deialdi honen laugarren oinarrian zehaztutako baldintzak betetzea.

- Ezin dira onuradun izan Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2007 Lege Orokorrak 13. artikuluan zehazten dituen egoeretako batean dauden pertsona fisiko nahiz erakundeak.

- Ezin izango dira dirulaguntzaren onuradun izan laguntza hau jasotzeko kontuan hartzen den aldiaren hasieran derrigorrezko eskolatze adina duten pertsona fisikoak, eskolatuta egon ala ez.

Laugarrena. Eskaerak eta agiriak aurkeztea

Eskatzaileek honako dokumentazio hau aurkeztu behar dute Eskuernagako Udalaren bulegoetan (Herrería 15 – 01307 Eskuernaga) edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2016 Legeak eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legeak ezartzen dituzten bideetako bat erabiliz:

- Udalak emandako eskaera ofiziala, behar bezala beteta.

- Euskara ikasteko zentroaren ziurtagiria, ikastaroaren ezaugarriak jasotzen dituen:

- Ikaslearen identifikazio datuak.

- Matrikulazioagatik ordaindu beharreko zenbatekoa.

- Egindako ikastaroa: maila eta irakastorduak (astekoak eta guztira).

- Ikastaroaren hasiera eta amaiera eguna

- Ikastaroak barnetegietan eginez gero, gastuak banakatu behar dira: irakaskuntza gastuak eta mantenu ostatu gastuak.

- Beste erakunde batzuek emandako laguntzen zenbatekoa egiaztatzen duen agiria, halakorik eskatu bada.

Bosgarrena. Eskaera aurkezteko epea

Hilabete izango da laguntza eskaerak eta gainerako agiriak aurkezteko, deialdia ALHAOn argitaratzen den egunetik hasita.

Akatsak edo irregulartasunak zuzentzeko, 10 eguneko epea izango da, eskaera eta eskatutako dokumentuak aurkezten direnetik aurrera. Eskatzaileak ez badu zuzenketa hori egiten adierazitako epean, eskaera artxibatu egingo da, beste izapiderik gabe.

Seigarrena. Dirulaguntzen zenbatekoa

Deialdi honen oinarrietan zerrendatutako betekizunak betetzeak eta adierazitako moduan egiaztatzeak dagokion dirulaguntza jasotzeko eskubidea emango du. Deialdi honetan aurkeztutako ikastaroaren matrikularen ehuneko berrogeita hamar jasoko du eskatzaileak.

Baldin eskaera kopurua eta eman beharreko diru zenbatekoak direla-eta dirulaguntzen gehieneko zenbatekoak gutxitu behar badira aurrekontuan ezarritako partidaren zenbatekora doitzeko, murrizketa proportzioan ezarriko zaie eskatzaile guztiei.

Zazpigarrena. Justifikazioa

2022ko urriaren 1etik 2023ko ekainaren 30era bitartean egindako ikastaroetarako jasotako laguntzak 2023ko urriaren 30a baino lehen justifikatu beharko dira. Horretarako, Eskuernagako Udalari honako dokumentazio hau aurkeztuko zaio:

- 1) Euskara ikasteko zentroaren jatorrizko ziurtagiria, ikastaroaren ezaugarriak jasotzen dituen:

- Ikaslearen identifikazio datuak.

- Matrikulatutako ikastaroaren kostua.

— Ikastaroak barnetegietan eginez gero edo ikastaro trinkoak eginez gero, gastuak banakatu behar dira: irakaskuntza, mantenu eta ostatu gastuak.

• Ikaslearen asistentzia maila: emandako eskola orduen eta ikasleak parte hartutako orduen arteko erlazioa adierazten duen ehunekoak.

2) Ikastaroa ordaindu dela egiaztatzen duen banku ziurtagiria (edo ordainketa ziurtagiriak, epekako ordainketa aukeratu bada).

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Eskuernaga, 2023ko irailaren 6a

Alkatea

IÑAKI PEREZ BERRUECO